

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BUSTURIALDEKO UREN KONTSORTZIOAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Busturialdeko Uren Kontsortzioaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontsortzioaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, kontratazio, diru-laguntza eta zorpetzearen alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Aurrekontuaren atalean adierazi da 0,3 milioi euroren gastu arruntak egin direla horretarako aurrekontu krediturik batere izan gabe.

Langileei dagokienez azpimarratu da artekaritza lanak ez direla gauzatu eta diruzaintzakoak, berriz, lan kontratupeko langileek egiten dituztela, indarreko legeriaren arabera funtzionarioek egin behar dituztenean.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Kontsortzioak ez dituela hainbat kasutan bete administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak eta adierazgarriena 2008an esleitutako kontratu baten aldaketa bat onartzea eta obra osagarriak egitea izan dela, guztiek batean esleitutako zenbatekoaren gainean % 61eko igoera eraginez; horrek kontratazio araudiaren lehia printzipioak urratzen ditu, kontratuaren xedea ez ezik, bolumen ekonomikoa ere itxuraldatzen baitu.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina 0,7 mila euroan murriztu dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta beste hainbat ataletan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez jakinarazi da 2010ean onartutako tarifa jaitsierak desoreka eragin zuela eragiketa arruntetan eta ondorioz, zerbitzuaren beraren kostuei ere ezin aurre egin izan zaie; alabaina, 2012an onartutako tarifa aldaketak diru-sarrerak gehituko ditu eta 2011ko abenduaren 31ko diruzaintza geldikin negatiboa finantzatu beharko du. Nolanahi den ere, bai sarreretan, bai gastu arruntetan ekintza zehatzak jasoko dituen plana mamitu behar du, aurrezki garbia gehitu eta maileguaren muga-egunei, inbertsioak berregiteko beharrei eta 2013an inbertsio berriak abiarazteak sor ditzakeen etorkizuneko funtzionamendu gastuei aurre egiteko bide emango duena.